



Data: 2019/05/20

Ordua: 11:45

Tokia: Iurretako Udaletxea

### Partaideak

---

Udal ordezkariak: Iñaki Totorikaguena, Iurretako alkatea; Mikel Pagonabarraga, Iurretako teknikaria

Iurretako ikastetxeak: Maiztegi Eskola eta Juan Orobiogoitia BHI + koordinatzaileak

Ortzadarreko teknikariak: Igoa Gorostola eta Oihane Aranguren

### Helburuak

---

- Eskolen Arteko Foroan adostutako proposamenak eta konpromisoak udalari aurkeztu.
- Aurreko urteko proposamenak berrikusi eta horien inguruan egindakoa ezagutu.
- Ikastetxeek aurreko egindako lana aurkeztu.
- Udala eta ikastetxeen artean harremanak estutu.

### Gai-zerrenda

---

- 11:40 Partaideen harrera
- 11:45 Parte hartzaile guztien aurkezpena
- 11:50 Udal ordezkarien ongi etorria
- 11:55 Aurreko urteko proposamenen irakurketa eta udalaren erantzuna
- 12:05 Aurreko urteko proposamenen irakurketa
- 12:10 Eskolek egindako lanen aurkezpena
- 12:20 Eskolen arteko foroan egindakoa
- 12:25 Ikasleek adostutako konpromisoen eta udalari egindako proposamenen irakurketa
- 12:30 Alkatearen eta teknikariaren erantzuna eta agurra
- 12:35 Ikasleen eta irakasleen ebaluazioak
- 12:40 Saioaren amaiera eta argazkia



2019ko maiatzaren 20-an, lurretako Udaletxean, Maiztegi Eskolako eta Juan Orobiogoitia BHI-ko ikasle eta koordinatzaileak eta Udaleko ordezkariak batzen dituen Udal Foroa egin da.

Topaketa honen helburu nagusia, Eskolen Arteko Foroan adostutako konpromisoak eta proposamenak udaletxeari helaraztea da, baina horretaz gain, iazko proposamenak birpasatzen dira baita ere.

Saioa hasteko, parte hartzaile guztiei eskerrak eman eta aurkezpenak egin dira. Ondoren udal ordezkariak hitza hartu dute ongi etorria emateko.

Jarraian, aurreko ikasturteko proposamenen errepasso bat egin da eta udaletxeko ordezkariak horien inguruan egindakoa azaldu dute banan-banan.

Ondoren, ikasturte honetan zehar jorratutako gaiari (Elikadura zirkularra) sarrera eman zaio. Jarraian aurkezpen baten laguntzaz, ikastetxe bakoitzak ikasturtean zehar egindako lana erakusteko eta azaltzeko aukera izan du.

Behin ikasleek egindakoa azalduta, Eskolen Arteko Foroan egindakoa laburki kontatu dute eta ikasleek adostu dituzten konpromisoak eta udalari egiten dizkioten proposamenen irakurketa egin da. Udal ordezkariak egindako proposamenen inguruan erantzun azkar bat eman dute.

Bukatzeko, udal ordezkariak egindako lana eskertu eta zoriondu dute eta hurrengo urtean programan lanean jarraitzera animatu dituzte bertan bildu diren ikasle eta koordinatzaileak.

### Argazkiak

- ✓ [Argazkiak](#)

### Balorazioak

- ✓ [Irakasleen balorazioak](#)
- ✓ [Ikasleen balorazioak](#)

### Materiala

- ✓ [Aurkezpena](#)
  - ✓ [2017-18 proposamenen erantzuna](#)
  - ✓ [2018-19 Konpromiso eta proposamenen txostena](#)
-